

«Arloa»

2019IAKU0012

**2019/06/26an EGINDAKO EZOHIKO OSOKO
BILKURA .**

SE
PL
26

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

José Ramón Zubizarreta Alegría.

Zinegotziak

Maite Uribe Beristain
Antonio Regaño Sájeras
Josu Ezkurdia Santamaría
Ana Belén de Castro Ramos
Eluska Irazu Henández
Dorleta Sologaistoa Aguiriano
Ander Errarte del Pozo
Iñaki Kerejeta Gorostiza

Idazkaria

Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2019ko ekainaren 26a, arratsaldeko seitan, Udaletxeko Osoko Bilkura aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, ezohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Maria Purificación Regidor Varela eta Nestor Arana.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas del día 26 de junio de 2019, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente José Ramón Zubizarreta Alegría, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten María Purificación Regidor Varela y Nestor Arana.

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAA4XP4H.qFi6>



1.- Alkatearen adierazpenak.

Alkateak berariaz eman du ondorengo erabakiaren berri:

ALKATEAREN ERABAKIA

ZENBAKIA: 0743

GAIA: 2019-2023: Alkateorde izateko zinegotziak izendatzea

ESPEDIENTEA: 2019IUDE0001

INTERESDUNA: ESKORIATZAKO UDALA

Legez emandako ahalmenak erabiliz, eta bereziki, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.2 artikuluak xedatutakoaren arabera.

Eta 2019ko maiatzaren 26an egindako udal hauteskundeak ikusita, eta 2019ko ekainaren 15ean Udalbatzarra eratuta, Alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

LEHENENGOA.- Alkateorde izateko ondorengo zinegotziak izendatzea:

Lehenengo alkateordea: Josu Miren Ezkurdia Santamaría.

Bigarren alkateordea: Maite Uribe Beristain.

Hirugarren alkateordea: María Purificación Regidor Varela

BIGARRENA.- Izendatutakoei dagokie, izendatze hurrenkera jarraituta, Alkatetza hau bere eskumenetan ordezkatzea legez aurreikusitako kasuetan.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau jakinaraztea izendatutako pertsonei, hala bada, kargu horiek onartu ditzaten.

LAUGARRENA.- Izendapen horien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera bidaltzea argitara dezaten eta udal iragarki oholean ere argitaratzea.

BOSGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Udalbatzarrari egiten duen lehen bilkuran.

Ez Ohikoa Udalbatza
PlenoPleno Ez Ohikoa



SEIGARRENA.- Izendapenok indarra izango dute erabaki honen biharamunetik.

2.- Erabakia, udalbatzarraren bilkurak zenbatero egin behar diren eta zein egunetan.

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 46.2.a) artikuluak ezartzen du Toki-erakundeetako kide anitzeko organoek ohiko bilkurak egingo dituztela, aurrez ezarritako aldizkakotasunez, eta baita bilkura bereziak ere; Udalbatzarraren beraren eskumena izanik ohiko bilkuretako egunak jartzea. 5.000 biztanletik beherako udalerriean ohiko bilkurak egiteko gutxieneko aldizkakotasuna hiru hilabetekoa da.

Alkatetzak proposatzen du ohiko bilkurak hilabete bakoitzeko laugarren astearte baliodunean egitea, 18:00etan.

BILDUko zinegotziek eskatzen dute ordua aldatu eta 19:00etan egitea, bilerak eta lana bateratu ahal izateko.

Hitza emanda, Josu Ezkurdia esan du Alkatetzaren proposamena mantenduko dela ondoren laburbiltzen diren arrazoiengatik: guk 18:00etan mantentzea planteatzen dugu, izan ere, nahiz eta jakin batzuetan ez dela erraza ordutegi hori lanarekin bateratzea, eta gauza bera gertatzen da txandaka lan eginez gero, familiarekin bateratu beharra ere hor dago. Aurreko esperientziarekin ikusi genuen osoko bilkura batzuk luzatzen zirela eta horrek zaildu egiten zuela familiarekin edo seme-alabekin afaltzea, eta horregatik, proposatzen dugu aurreko agintaldian baino ordu erdi lehenago egitea bilkurak. Uste dugu norbaitek kargua hartzen duenean ondorio guztiekin egin behar duela, eta batzuentzat ordu bat goiz izan daitekeela, eta beste batzuentzat, berriz, berandu. Horregatik mantentzen dugu gure proposamena.

Eztabaida amaituta, bozkatu egin da eta aldeko 6 botorekin (EAJ/PNVko 5 zinegotzi eta EEE-ko zinegotzi bat) eta BILDUko 3 zinegotziek aurka bozkatuta, Udalbatzarrak erabaki du ohiko bilkurak, aurrez deialdia eginda, honela egitea:

Aldizkakotasuna: hilero.

* Asteko eguna: laugarren asteartea. Laugarren asteartea baliogabea baldin bada, osoko bilkura aurreko egun baliodunean egingo da. Larunbata ez da kontatuko.

* Ordua: 18:00. Justifikatutako arrazoirik balego, Alkateak ahalmena izango du ordua aldatzeko. Aldaketaren arrazoien berri eman beharko dio Udalbatzarrari.

* Bozketa egiteko modua: bozketak ohiko eran egingo dira, Udalbatzarrak kasu zehatzen baterako, eta gehiengo soilez, berariaz bestelakorik ez badu erabakitzan behintzat. Kontrakorik argi eta garbi eta berariaz adierazten ez dutenek alde bozkatu dutela ulertuko da. Isilik egotea ere proposamenaren aldeko bototzat joko da.



* AJAko 80.3 artikuluak jartzen badu ere bilkuretarako deialdia zinegotziei beraien etxearen jakinarazi behar zaiela, honela egitea erabaki da: deialdia zinegotzi bakoitzaren erretiluan utziko da eta telefonoz edo posta elektronikoz jakinaraziko zaio.

3. Batzorde informatiboak nola eratu, osatu eta zenbat aldiz elkartu.

Bertaratutako guztiak ezagutzen dute Alkateak egindako proposamena batzorde informatzaileen izenari, osaerari eta erregimenari buruz, eta baita EH BILDUk egindako proposamen osagarria ere azpibatzordeak sortzeko.

Alkateak bere proposamenaren berri eman ondoren, hitza eman dio EH BLDU, eta ondorengoa esan dira:

Ander Errarte: guk, gure aldetik, galdu nahi dugu proposamena itxia ote den, beste proposamen bat dugulako, gure ustez osagarria. Proposamena ez bada itxia, gu abstentitu egingo ginateke eta gure proposamena eztabaideatu dezakegu. Gainera, gehitu nahi dut 11 zinegotzi garela, eta gu prest gaudela erantzukizunak hartzeko.

Josu Ezkurdia: Udalbatzar hau eratu baino lehen izan genuen bileran esan genuen bezala, uste dugu gure proposamena egokia dela. Eskertzeko da zure proposamena, azken finean, ekarpen guztiak ongi eterriak baitira. Uste dugu gure proposamena egokiagoa eta hobea dela, azken lau urteetan ondo funtzionatu duelako. Uste dugu ondo funtzionatzen duena ez dagoela zertan aldatu. Bestalde, zuen proposamenetik ideia bat hartu dugu, eta 5 batzorde izatetik 6 izatera pasa gara. Batzorde berri bat sortu dugu, euskarakoa, zuek proposatzen zenuen bezala, uste baitugu lehengo kultura, kirola eta euskara batzordeak arlo asko hartzen tituela: euskara, kultura, kirola, gazteria, hezkuntza... Hori da gure proposamena, eta oraingoz horrekin jarraitzen dugu. Horrek ez du esan nahi funtzionatzen ez duela ikusten badugu aldatu ez daitekeenik.

Dorleta Sologaistoa adierazi du bere taldearen proposamena ez dela batzorde gehiago sortzea, baizik eta batzorde bakoitzak hartzen dituen arloen erantzukizuna banatzea.

Josu Ezkurdia erantzun dio, ikusirik antolaketa aldetik ze ondo funtzionatu zuen aurreko agintaldian, talde guztiak izan baitzuten ekarpenak egiteko eta talde lanean aritzeko aukera, sistema bera mantentzearen alde egin dutela. Gehitu du azpibatzordeak sortzeak bilera gehiago egin beharra dakarrela, horrek izango lituzkeen zaitasunekin dinamika hori lanarekin bateratzeko.

Eztabaida amaituta, bozketa egin da, eta 6 zinegotzik alde bozkatuta (EAJ/PNVko 5 eta EEEko 1), eta EH BILDUKO 3 zinegotziek aurka, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Ondorengo izen, osaera eta erregimena izango duten batzorde iraunkorrak sortzea:

1.- HIRIGINTZA, MUGIKORTASUN ETA INGURUMEN BATZORDE INFORMATZAILEA.

- Osaera:
Zinegotziak:

Ez Ohikoa Udalbatza
PlenoPleno Ez Ohikoa



Josu Ezkurda Santamaría
Maria Purificación Regidor Varela
Antonio Regaño Sajeras
Joseba Iñaki Kerejete Gorostiza
EH BILDUk izendatu beharreko zinegotzia

- Arloetako teknikariak.
- Aldizkakotasuna: hilero, batzordeburuak jarritako egunean eta orduan.
 - Eskumenak: ondorengo arloetako gaiak.

1.1.- Hirigintza.

1.2.- Obrak eta zerbitzuak.

1.3- Elizateak.

1.4.- Mugikortasuna.

1.5.- Ingurumena.

2- PERTSONAL ETA OGASUN BATZORDE INFORMATZAILEA

- Osaera:
Zinegotziak:

Jose Ramón Zubizarreta Alegria
Josu Ezkurda Santamaría
Maria Purificación Regidor Varela
Joseba Iñaki Kerejete Gorostiza
EH BILDUk izendatu beharreko zinegotzia

- Arloetako teknikariak.
Aldizkakotasuna. hilero, batzordeburuak jarritako egunean eta orduan.
- Eskumenak: ondorengo arloetako gaiak:

2.1.Pertsonala.

2.2.- Ogasuna.

2.3.- Kontuen batzorde berezia.

2.4.- Antolakuntza eta funtzionamendua.

Ez Ohikoa Udalbatza
PlenoPleno Ez Ohikoa



3.- GIZARTE ZERBITZUETAKO BATZORDE INFORMATZAILEA.

- Osaera:

Zinegotziak:

José Ramón Zubizarreta Alegria
Maite Uribe Beristain
Ana Belén de Castro Ramos
EH BILDUk izendatu beharreko zinegotzia

Arloetako teknikariak.

- Aldizkakotasuna: hilero, batzordeburuak jarritako egunean eta orduan.
- Eskumenak: ondorengo arloetako gaiak.

3.1.- Gizarte Zerbitzuak.

3.2.- Prebentzioa.

3.3.- Berdintasuna.

3.4.- Osasuna.

4.- KULTURA ETA KIROLA BATZORDE INFORMATZAILEA

- Osaera:

Zinegotziak:

Maite Uribe Beristain
Antonio Regidor Varela
Maria Purificación Regidor Varela
EH BILDUk izendatu beharreko zinegotzia

Arloetako teknikariak.

- Aldizkakotasuna: hilero, batzordeburuak jarritako egunean eta orduan.
- Eskumenak: ondorengo arloetako gaiak.

4.1.- Kultura.

4.2.- Jaiak.

4.3.- Kirola.

4.4.- Parte-hartzea.



5.- EKONOMIA GARAPEN JASANGARRIRAKO BATZORDE INFORMATZAILEA

- Osaera:
Zinegotziak:

Jose Ramón Zubizarreta Alegria
Antonio Regaño Sajeras
Josu Ezkurdia Santamaría
EH BILDUk izendatu beharreko zinegotzia

- Arloetako teknikariak.
- Aldizkakotasuna: hilero, batzordeburuak jarritako egunean eta orduan.
 - Eskumenak: ondorengo arloetako gaiak.

5.1.- Jarduera ekonomikoaren garapena

5.2. Merkataritza.

5.3.- Turismoa.

6.- EUSKARA, GAZTERIA ETA HEZKUNTZA BATZORDE INFORMATZAILEA

- Osaera:
Zinegotziak:

Jose Ramón Zubizarreta Alegria
Maite Uribe Beristain
Ana Belén de Casto Ramos
EH BILDUk izendatu beharreko zinegotzia

Arloetako teknikariak.
Aldizkakotasuna. Hilero, batzordeburuak jarritako egunean eta orduan.

- Eskumenak: ondorengo arloetako gaiak:

6.1.Euskara.

6.2 Gazteria.

6.3.- Hezkuntza.

6.4.- Komunikazioa.

Ez Ohikoa Udalbatza
PlenoPleno Ez Ohikoa



Bigarrena.- Batzorde bakotzeko zinegotziek, justifikatutako arrazoiren batengatik batzordeko bileraren batera joan ezin daitezkeenean, eskumena daukate beraien ordez udal taldekide bat izendatzeko. Horrelakoetan, ordezko zinegotziak hitza eta botaia izango du.

4.- Udal taldeetako bozeramaleak izendatzea.

Egindako proposamenen arabera, ondorengo udal taldeak osatuta eta bozeramaleak izendatuta geratu dira:

* **Eskoriatzako EAJ-PNV** : Josu Miren Ezkurdia Santamaría eta ordezkoa Ana Belén de Castro Ramos.

* **EH BILDU.** Eluska Irazu Hernández, ordezkoa izendatu gabe gelditzen da hurrengo bilkura arte, non Nestor Arana Arexolaleibak bere kargua hartuko duen.

* **Eskoriatzako Elizateen Elkartea (EEE)**: Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza

5.- Alkate karguak dedikazio esklusiboa izatea.

Bertaratutako guztiak ezagutzen dute gobernu taldeak egiten duen proposamena.

Horren edukia Josu Ezkurdiak azaldu ondoren, ondorengoek hitz egin dute:

Ander Errarte: ez gaude ados Alkateak bere buruari ezarritako soldatarietan. Uste dugu planteatzen den soldatua igoera ez dela egokia gure herrikideek bizi duten prekariatate, langabezia eta babesgabetasun egoerarekin. Egia da legezkoa dela, baina horrek ez du esan nahi etikoa iruditzen zaigunik. Eta, uste dugu igoera ez dela proporcionala.

Josu Ezkurdiak erantzun dio EUDELek egindako proposamena dela, eta erakunde horretan alderdi politiko guztiak parte hartzen dutela, PSE eta EH BILDU barne; goragoko zerbait dela, eta EUDELen guztiak egon behar direla ados horrekin.

Ander Errartek berriz ere esan du ez duela zalantzan jartzen legearen barruan dagoenik, baina, beraiei ez zaiela etikoa iruditzen herriak bizi duen egoerarekin Alkateak 59.188,22 euro irabaztea.

Josu Ezkurdiak berriz dio EH BILDU ados dagoela EUDELekin.

Ander Errartek erantzun dio bere taldea baietz, baina hemen dauden zinegotziak ezetz.



Eztabaida amaituta, 6 zinegotzik alde bozkututa (EAJ/PNVko 5 eta EEEko 1) eta BILDuko 3 zinegotziek aurka, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Alkateak bere kargua arduraldi esklusiboan bete dezala.

Bigarrena.- 2019ko ekainaren 15etik hasitako eraginarekin, Alkatearen urteko ordainsaria 59.188,22 euro gordinetan ezartzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2019.urterako aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 21eko 7/2018 Foru Arauaren bosgarren xedapen gehigarriaren arabera.

6.- Eskoriatzako EH BILDUK aurkeztutako mozioa: Gi 627 errepeidea Arlaban Mendaitearen tartearen konpontzeko Foru Aldundiari Bideratzeko eskaera.

Hitza emanda, Eluska Irazuk labur azaldu ditu bere taldeak mozioa aurkezteko arrazoiak. Hona hemen mozioaren hitzez hitzezko transkripzioa:

ESKORIATZAKO EHBILDUREN MOZIOA: GI-627 ERREPIDEA ARLABAN MENDATEAREN TARTEAN KONPONTZEKO FORU ALDUNDIARI BIDERATZEKO ESKARIA

Eskoriatza, 2019ko Ekainak 20

Herritarrek adierazitakoari erantzunez:

ADIERAZTEN DUGU:

- *Gaur egun, Arlabaneko GI-627 errepeideak hainbat puntu beltz izaten jarraitzen dituela, zehazki, 22-23; 23-24; 24-25 puntu kilometriko-tarteak galtzada-asfaltoari dagokionez.*
- *Aipatutako errepeideak arazoak eman dituela hainbatetan, besteak beste: 1991ko martxoan; 2009ko maiatzean; 2013ko otsilean; 2016ko martxo eta ekainean; 2018ko urrian.*
- *Errepidearen egoera desegokiaren ondorioz, hainbat istripu suertatu dira, batez ere, txirrindularien artean. Azkenak, aste honetan bertan, ekainak 13 eta 16an, biak zein biak nahiko larriak.*

ESKATZEN DUGU:

- *Gipuzkoako Foru Aldundiari kezka hau helaraztea eta haietan kontaktu iraunkorra mantentzea: herritarren kezkari erantzunez eta GI-627 errepeidea erabiltzen dutenen segurtasuna bermatu aldetik, lehenbailehen, hartu daitezen behar diren neurriak, hala nola, eta lehenengo neurri gisa: errepeidean dauden zulo, desnibel eta bestelakoak konpondu.*
- *Aurrera begira, eta, sortu daitezkeen arazoak aurreikusiz errepeide horrek behar dituen egokitze neurri guztiak hartzea bazter-babesen aldaketa barne.*

Ez Ohikoa Udalbatza
Pleno Pleno Ez Ohikoa



- **Diputazioari bidaliko zaion eskaera honen berri Leintz Gatzagako udaletxea informatzea;**
haien jakinean gainean jarriz eta nahi dituzten iniziatiabak hartzeko asmoz, batera helarazteko aukera eman.

Aldez aurretik eskertuta, zuen erantzunaren zain,

Arrazoia azalduta, eta jakinarazita Leintz Gatzagako Udalarekin adostutako mozioa dela, ondorengoeik hitz egin dute:

Iñaki Kerejeta: bai, konponketa guztiz beharrezkoa da, eta ez bakarrik bide horrena, bestearena ere bai. Konponketa eta abiadura mugatzea behin eta berriz elizateek eskatu dituzten kontuak dira. Nik proposatuko nuke Eskoriatzaako Udalaren eta Leintz Gatzagakoaren arteko batzordea sortzea gaiari elkarrekin aurre egiteko eta eskaera Aldundiari helarazteko.

Josu Ezkurdia: guk, mozio horren aurrean bi gogoeta egin nahi ditugu. Lehenengoa, gure harridura da. Uste dugu gai hau batzorde informatzaile batean aztertu eta kudeatu beharrekoa dela, eta batzorde informatzaile berriak gaurko osoko bilkuraren sortu dira. Eta, harridura esaten dut mozio honen gainean hitz egiteko denborarik ez dugulako izan. Guk, aurreko agintaldian esan genuen gure taldea prest zegoela mozioak eztabaideatzeko, adosteko eta onartzeko; baina, hona ekarri baino lehen. Ez kasu honetan bezala, mahai gainean jaso baitugu mozioa aldez aurretik eztabaideatu gabe. Etorkizunari begira, eskubide osoa duzue egoki iritzitako mozioak aurkezteko, baina, guk, aldez aurretik ez badira eztabaideatu, adostu edo aztertu, automatikoki baztertuko ditugu, gaiaren mamian sartu gabe. Eta mozio hau horrelakoa da. Ez dugu zalantzan jartzen errepidearen egoera ona edo txarra den, ez dugu zalantzan jartzen ere mozioaren edukia, baina, ez dugu onartuko lehen esan dudanarengatik, ez delako aurrez aztertu. Eta, bigarren gogoetari dagokionez, eta ezagutzen gaituzuenok badakizue, aurreko lau urteetan lortu duguna eta datozen lau urteetan lortzen jarraitu nahi duguna da harreman zuzena izatea beste erakunde publiko batzuekin, Aldundia eta Eusko Jaurlaritza barne. Horrek esan nahi du ez dugula izan behar inolako arazorik horrelako eskaerak (eta etorri daitezkeenak) egiteko horrekin lotutako departamentuetako arduradunei, beraiekin hitz egiteko, konponbideak adosteko... eta beraiek zer nolako asmoak dituzten ere jakiteko. Uste dugu hori izan behar dela bidea, eta ez mozioena. Ez diogu zentzurik ikusten Eskoriatzaako Udalak Aldundiari mozio bat aurkeztea aldez aurretik ez bada gaiaz hitz egin eta arrazoaren berri eman. Bi arrazoi horiengatik aurka bozkatuko dugu. Eta, berriz diot: ez mamiarengatik baizik formarengatik.

Eluska Irazu: lehenengo gogoetari buruz, harridurari buruz, oker ez banago mozioan bertan esaten da azken istripuak ekainaren 13an eta 16an izan zirela, eta uste dut erantzun azkarra eskatzen duela. Edurnek esan bazidan ere batzordera jotzeko, ikusirik oraindik eratu gabe zeudela, eta eratu, osoko bilkurara ekarri, oporrak, eskaera egin... Gabonak iritsiko zirela eta oraindik ezer egin gabe egongo zela, mozioa aurkeztu dugu. Mozio bidez egin bada gaia lehenbailehen martxan jartzeagatik izan da, ez da izan atentzioa deitzeagatik edo inoren aurka jotzeagatik; bakarrik prozesua martxan jartzeagatik izan da, besterik gabe. Eta, ostiralean aurkeztu zen. Gu berriak gara, ez dakigu zein izan den orain arteko funtzionamendua eta zertaz hitz egin den azken lau urteetan. Berriak gara eta eskertzen dugu gauzei buruz abisatzea. Eskertzen dugu esatea nola funtzionatzen den normalean. Zuek ezarrita duzuela EH BILDUrekin

Ez Ohikoa Udalbatza
PlenoPleno Ez Ohikoa



orain dela 4 urte mozioak aldez aurretik aztertu behar direla, ba, ondo, baina guk orain jakin izan dugu, eta guretzat presazkoa da mozioaren gaia.

Josuk argitu du beharbada gaizki adierazi duela, baina, beraiek ez zutela adostu EH BILDUREkin mozioak alde aurretik eurekin adostu behar zirenik, baizik eta EAJ/PNVk jarritako baldintza izan dela, bere erabakia. Gero, hau esan du: eta, bestalde, eta ikusirik zein den gaiaren mamia, proposamen bat egingo dizuet. Datorren astean hirigintza batzordea izango da, Aldundi berria oraindik eratzen ari da, eta oraindik ez dakigu zeintzuk izango diren departamentu bakoitzeko arduradunak beraiekin hitz egitera joateko. Proposatzen dut mozioa erretiratzen baduzue gaia batzordean aztertzea datorren astean, bertan nola kudeatu erabakitzea eta erabakitakoarekin Aldundira jotzea. Eman dituzuen arrazoia erabat logikoak iruditzen zaizkigu; horregatik, mozioa erretiratzen baldin baduzue prest gaude gaia datorren osteguneko batzordean azterzeko.

Alkateak argitu du mozioei buruz bere taldeak egindako planteamendua ez zela bakarrik EH BILDUREntzat, udal talde guztientzat zela.

Alkateak bost minutuko etena egitea erabaki du Josu Ezkurdiak egindako proposamena EH BILDUKo zinegotziek aztertu ahal izateko.

Bilkurarekin jarraiturik, Eluska Irazuk hartu du hitza: lehendabizi, eskerrak eman eta barkamena eskatu gura dugu. Argitu nahi dudan lehen gauza da mozio honen helburua dela Eskoriatzako eta Leintz Gatzagako udalek elkarrekin ematea behar horren berri Aldundiari. Kontua ez da beste mozio bat eramatea Aldundira. Horregatik, ez dugu mozioa erretiratu behar, eskatu digutenen aurrean konpromiso bat hartu dugu, ikusi dute aurkeztu dugula, eta ordezkari garenez, uste dugu mantendu behar dugula.

Josu Ezkurdia: zuen planteamendua ikusita, guk aurka bozkatuko dugu, baina, gaia datorren osteguneko batzordean aztertuko da.

Hitz egiteko txandak amaituta, bozketa egin da.

Aurkako 5 botorekin (EAJ/PNV), abstentzio 1 (EEE) eta EH BILDUREn 3 zinegotziek alde bozkatuta, mozioa ez da onartu.

7.- Galde-eskeak.

Zinegotziek ez dute inolako eskaera edo galderarik egin.

Jende artetik, Jose Mari Kortazarrek eskatu du hitz egitea “Lagunkoia” taldearen ordezkari bezala. Alkate-Udalburuak hitza eman dio.

Hona hemen esandakoa laburbilduta:

Ez Ohikoa Udalbatza
PlenoPleno Ez Ohikoa



Jakinarazi du bilkuraren taldeko bost kide daudela, eta Lagunkoia osatzen duten jubilatu taldeak sustatzen duten proiektuaren lerro nagusiak azaldu ditu. Esan du herria aztertu dutela, batez ere hirigintza eta gizarte aldetik, eta San Pedro jaien ondoren Udalbatzarra osatzen duten hiru taldeei aurkeztuko dietela proposatzen duten jarduera programa.

Adierazi du ere bilkurara etortzearen lehenengo helburua hiru udal taldeetako bakoitzea ezagutzea dela agintaldia hasten den bilkura horretan, eta horrela, irizpide eta ahots propioarekin hitz egin ahal izan; bigarren helburua, ordezkatzen duen elkartearren, Lagunkoiaren, helburuari lotuta, herri lagunkoiago bat egitea litzateke, eta horretarako bideetako bat sortu diren batzordeetako baten ardura oposizioari ematea izan daitekeela esan du, eta baita epe ertain eta luzerako planteatzen diren plan estrategikoak adostuak izatea ere; esan duenez, adostasuna plan horien bideragarritsunaren berme baita.

Parte hartze hori amaituta, Alkateak, bere esker ona adierazi ondoren, jakinarazi die Lagunkoiaren ordezkariei bere taldeak, orain arte egin duen bezala, atea irekita izango dituela elkartearren proposamenak entzun eta kontuan izateko. Eta, planteatuko azken kontuari buruz, esan du harro esan dezakeela 2018an udalbatzarrean planteatutako gaien % 90 aho batez onartu zirela, adostasunez, eta horrek erakusten duela zein den bere taldearen borondatea, eta beste behin ere, esan duenez, bere taldearen asmoa orain arte bezala lan egiten jarraitza dela, emaitza ona izan dela ikusita ez baitago aldatzeko arrazoirik. Amaitzeko esan du beraiek atea irekita izaten jarraituko dituztela, eta adostasunak lortzeko eta aipatutako portzentajeak errepikatzeko borondatea denon aldetik egon behar dela, bere taldeak jarraitzen duela horrela eskatzen duen pertsona edo elkarrekin orori entzuteko eta kasu egiteko konpromisoarekin, eta arrazoi handiagoarekin berresten dutela konpromiso hori Lagunkoiak bezala Eskoriatzako herriarentzat ekarpenak egin ditzaketenen aurrean.

Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 18:40an. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.



1.- Comunicaciones de la Alcaldía.

El alcalde da cuenta expresa de la siguiente Resolución:

RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA

Nº: 0743

ASUNTO: 2019-2023: Nombramiento de las Tenencias de Alcaldía

EXPEDIENTE: 2019IUDE0001

INTERESADO: ESKORIATZAKO UDALA

En uso de las atribuciones que legalmente tengo conferidas, en especial de acuerdo con lo dispuesto por el artículo 21.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local.

Y vista la celebración de elecciones municipales el pasado día 26 de mayo de 2019, habiéndose procedido a la constitución de la nueva Corporación el día 15 de junio de 2019

RESUELVO

PRIMERO.- Nombrar como titulares de las Tenencias de Alcaldía a los siguientes concejales:

Primer Teniente de Alcalde: Josu Miren Ezkurdia Santamaría

Segunda Teniente de Alcalde: Maite Uribe Beristain

Tercera Teniente de Alcalde: María Purificación Regidor Varela

SEGUNDO.-Corresponderá a los nombrados sustituir, por su orden de nombramiento, a esta Alcaldía en el ejercicio de sus atribuciones en los supuestos legalmente previstos.

TERCERO.-Notificar la presente resolución a las personas designadas a fin de que presten en su caso la aceptación de tales cargos.

CUARTO.-Remitir anuncio de los referidos nombramientos para su inserción en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y publicarlos igualmente en el Tablón de Anuncios municipal.

QUINTO.-Dar cuenta de la presente resolución al Pleno en la primera sesión que se celebre.

Ez Ohikoa Udalbatza
PlenoPleno Ez Ohikoa



SEXTO.-*Los nombramientos efectuados serán efectivos desde el día siguiente a la fecha de la presente resolución.*

2.- Acuerdo sobre la perioricidad de las sesiones del Ayuntamiento pleno y fecha de celebración

El Art. 46.2.a) de la Ley 7/1985, de Bases de Régimen Local establece que, los órganos colegiados de las Entidades Locales funcionan en régimen de sesiones ordinarias de periodicidad preestablecida y extraordinarias, siendo competencia de la propia Corporación la fijación de los días de reuniones ordinarias. En municipios de hasta 5.000 habitantes la periodicidad mínima para la celebración de sesiones ordinarias es de tres meses.

La propuesta de la alcaldía es fijar las 18:00 horas del cuarto martes hábil de cada mes para la celebración de las sesiones ordinarias.

Por parte de los concejales de BILDU se solicita que se cambie la hora a las 19:00 horas para poder compatibilizar la asistencia a las sesiones con obligaciones laborales.

Concedida la palabra, Josu Ezkurdia dice que la propuesta de la alcaldía se mantiene por las razones que a modo de resumen se transcriben: Nosotros planteamos mantener la 18:00 horas, porque, aun siendo conscientes de que a veces no es fácil conciliar ese horario con las obligaciones laborales, y ello se da también en el caso de que se trabaje a relevos, también está la conciliación familiar. Teniendo en cuenta la experiencia anterior y es que algunos plenos se alargan, y que ello ha dificultado el poder cenar con la familia y/o los hijos, es por lo que proponemos adelantar media hora respecto a la legislatura anterior. Creemos que cuando uno acepta el cargo ha de hacerlo con todas las consecuencias, y lo que para algunos una hora puede ser pronto, para otros puede ser tarde. Por eso mantenemos nuestra propuesta.

Terminado el debate, se procede a la votación, y con el resultado de 6 votos a favor (5 concejales de EAJ/PNV y 1 de EEE) y el voto en contra de los 3 concejales del BILDU, el Pleno ACUERDA que el Pleno se reúna en sesión ordinaria y previa convocatoria de la siguiente manera:

* Periodicidad: Mensual

* Día de la semana: Cuarto martes . Si el cuarto martes es inhábil el pleno se celebrará el día anterior hábil. El sábado no computa.

* Hora: 18:00 horas. Si existe causa justificada, el Alcalde queda facultado para modificar la hora. Deberá de dar cuenta de las razones al Pleno.



* Sistema de votación: Salvo que para un asunto determinado el propio pleno así lo acuerde de forma expresa y por mayoría simple, las votaciones se harán de forma ordinaria. Se entenderá que votan a favor los que clara y expresamente no se oponen; el mantenerse en silencio también será entendido como voto a favor de la propuesta.

* Si bien el art. 80.3 del ROF establece que las convocatorias de las sesiones deberán ser notificadas a los Concejales en su domicilio, se acuerda realizarlo de la siguiente forma: Se dejará la convocatoria en la bandeja personal de cada uno de los Corporativos y se le avisará por teléfono y/o e-mail.

3.-Creación, composición y periodicidad de las Comisiones Informativas

Por todos los presentes es conocida la propuesta que el Sr. Alcalde eleva en cuanto a la denominación, composición y régimen de las sesiones informativas, así como la propuesta complementaria que por EHBILDU se hace en relación a la creación de subcomisiones.

Tras informar el alcalde sobre su propuesta, concede la palabra a EHBILDU y se producen las siguientes intervenciones:

Ander Errarte: Nosotros, por nuestra parte, queremos preguntar si la propuesta que se plantea es cerrada porque tenemos otra propuesta que creemos puede ser complementaria. Si la propuesta no es cerrada, nosotros nos abstendríamos y podríamos pasar a debatir nuestra propuesta. Además quiero añadir que somos 11 concejales y nosotros estamos en disposición de asumir responsabilidades.

Josu Ezkurdia: Como ya dijimos en la reunión que mantuvimos antes de la constitución de esta corporación, creemos que nuestra propuesta es adecuada. Es de agradecer vuestra propuesta porque en último término todas las aportaciones son bien venidas. Creemos que nuestras propuesta es más adecuada y mejor porque en los últimos cuatro años ha funcionado bien. Pensamos que lo que funciona bien no hay porqué cambiar. Por otra parte, de vuestro planteamiento hemos cogido una idea y hemos pasado de 5 a 6 comisiones. Hemos creado una comisión nueva, la de euskera, como vosotros planteáis y porque creemos que la antigua comisión de cultura, deportes y euskera abarcaba demasiadas materias: euskera, cultura, deportes, juventud, educación.... Este es nuestro planteamiento, y en principio seguimos con él. Ello no quita que si vemos que no funciona bien se pueda cambiar.

Dorleta Sologaistoa manifiesta que la propuesta de su grupo no consiste en crear más comisiones, sino que en repartir la responsabilidad de las áreas que abarca cada comisión.

Josu Ezkurdia le responde que, visto lo bien que funcionó la anterior legislatura en cuanto a organización se refiere, que todos los grupos tuvieron opción de hacer aportaciones y de trabajar en equipo, han optado por mantener el mismo sistema. Añade que el crear subcomisiones conlleva a tener que realizar más reuniones con la dificultad que ello acarrearía de conciliar esa dinámica con las obligaciones laborales.



Terminado el debate, con el resultado de 6 votos a favor (5 concejales de EAJ/PNV y 1 de EEE) y el voto en contra de los 3 concejales del BILDU, el Pleno ACUERDA :

Primero: Crear las siguientes Comisiones permanentes, cuya denominación, composición y régimen serán los siguientes:

1.- COMISIÓN INFORMATIVA DE URBANISMO, MOVILIDAD Y MEDIO AMBIENTE

- Composición:
Corporativos:

Josu Ezkurda Santamaría
Maria Purificación Regidor Varela
Antonio Regaño Sajeras
Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza
Concejal pendiente de designar por EH BILDU

Técnicos de las distintas áreas.

- Periodicidad. Mensual , en los días y horas que establezca su presidente
- Competencias: En los asuntos que se refieren a las siguiente áreas

1.1.- Urbanismo.

1.2.- Obras y Servicios .

1.3.-Anteiglesias

1.4.- Movilidad

1.5.- Medio Ambiente

2- COMISION INFORMATIVA DE PERSONAL y HACIENDA

- Composición:
Corporativos.

Jose Ramón Zubizarreta Alegria
Josu Ezkurida Santamaria
Maria Purificación Regidor Varela
Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza
Concejal pendiente de designar por EH BILDU

Técnicos de las distintas áreas.

Periodicidad. Mensual, en los días y horas que establezca su presidente

- Periodicidad. Mensual en los días y horas que establezca su presidente
- Competencias: En los asuntos que se refieren a las siguiente áreas:

2.1.- Personal

2.2.- Hacienda

2.3.- Comisión Especial de Cuentas

2.4.- Organización y Funcionamiento.



3.- COMISIÓN INFORMATIVA DE SERVICIOS SOCIALES

- Composición:

Corporativos:

José Ramón Zubizarreta Alegría
Maite Uribe Beristain
Ana Belén de Castro Ramos
Concejal pendiente de designar por EH BILDU

Técnicos de las distintas áreas.

- Periodicidad. Mensual en los días y horas que establezca su presidente
- Competencias: En los asuntos que se refieren a las siguientes áreas

3.1.- Servicios Sociales.

3.2.- Prevención

3.3.- Igualdad.

3.4 Salud

4.- COMISIÓN INFORMATIVA DE CULTURA Y DEPORTES

- Composición:

Corporativos.

Maite Uribe Beristain
Antonio Regaño Sajeras
Maria Purificación Regidor Varela
Concejal pendiente de designar por EH BILDU

Técnicos de las distintas áreas

- Periodicidad. Mensual, en los días y horas que establezca su presidente
- Competencias: En los asuntos que se refieren a las siguientes áreas

4.1.- Cultura

4.2 Festejos.

4.3.- Deportes.

4.4 Participación

5.- COMISIÓN INFORMATIVA DE DESARROLLO ECONOMICO SOSTENIBLE

- Composición:

Corporativos:

Ez Ohikoa Udalbatza
Pleno Pleno Ez Ohikoa



Jose Ramón Zubizarreta Alegria
Antonio Regaño Sajeras
Josu Ezkurdia Santamaría
Concejal pendiente de designar por EH BILDU

Técnicos de las distintas áreas.

- Periodicidad. Mensual en los días y horas que establezca su presidente
- Competencias: En los asuntos que se refieren a las siguientes áreas

5.1.- Desarrollo de la Actividad Económica

5.2.- Comercio

5.3.- Turismo.

6.- COMISIÓN INFORMATIVA DE EUSKARA, JUVENTUD Y EDUCACIÓN

- Composición:
Corporativos.

Jose Ramón Zubizarreta Alegria
Maite Uribe Beristain
Ana Belén de Casto Ramos
Concejal pendiente de designar por EH BILDU

Técnicos de las distintas áreas.

Periodicidad. Mensual, en los días y horas que establezca su presidente

- Competencias: En los asuntos que se refieren a:

6.1. Euskera

6.2 Juventud

6.3.- Educación

6.4. Comunicación

Segundo: En cuanto a los miembros, los concejales de cada Comisión quedan facultados para designar entre su grupo a otro corporativo que le sustituya cuando por causas justificadas no pueda asistir a la sesión de la misma. Cuando concurra dicha circunstancia, el concejal suplente tendrá voz y voto.



4.- Nombramiento de portavoces de los grupos municipales

De conformidad con las propuestas elevadas, quedan constituidas las siguientes agrupaciones políticas y designados los siguientes portavoces de las mismas:

- * **Eskoriatzako EAJ-PNV** : Josu Miren Ezkurdia Santamaría y suplente Ana Belén de Castro Ramos.
- * **EH BILDU.** Eluska Irazu Hernández , el suplente queda pendiente de nombramiento para la próxima sesión en la que Nestor Arana Arexolaleiba tome posesión del cargo
- * **Eskoriatzako Elizateen Elkartea.(E.E.E.):** Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza

5.- Ejercicio del cargo de Alcalde con dedicación exclusiva.

Por todos los presentes es conocida la propuesta que desde el equipo de gobierno se hace.

Tras explicar Josu Ezkurdia el contenido de la misma, se dan las siguientes intervenciones:

Ander Errarte: No estamos de acuerdo con el sueldo que se ha puesto el Alcalde a sí mismo. Consideramos que no es acorde con la situación de precariedad, desempleo y desprotección que viven nuestros vecinos la subida salarial que se plantea. Es cierto que entra dentro de la legalidad, pero ello no quiere decir que nos parezca ético. Y consideramos que la subida es desproporcional.

Josu Ezkurdia responde que la propuesta que desde EUDEL se hace , donde participan todos los partidos políticos, incluido PSE y EH BILDU, es algo superior; así como que en EUDEL todos deben estar de acuerdo con ello.

Ander Errarte repite que no ponen en duda que esté dentro de la legalidad, pero que a ellos no les parece ético, con la situación que vive este pueblo, que el Alcalde pase a ganar 59.188,22 euros

Josu Ezkurdia insiste en que EH BILDU está de acuerdo en EUDEL.

Ander Errarte responde que su grupo sí, pero los concejales que están aquí no.

Terminado el debate, con el resultado de 6 votos a favor (5 concejales de EAJ/PNV y 1 de EEE) y el voto en contra de los 3 concejales del BILDU, el Pleno ACUERDA :

Primero: Que el Alcalde desempeñe el cargo en régimen de dedicación exclusiva

Ez Ohikoa Udalbatza
PlenoPleno Ez Ohikoa



Segundo: Con efectos a 15 de junio de 2019 establecer el nivel de retribución de Alcalde en 59.188,22 € brutos anuales, de conformidad con la Disposición Adicional Quinta de la Norma Foral 7/2018 , de 21 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2019.

6.-Moción de Eskoriatzako EH BILDU: Solicitud que se cursa ante la Diputación Foral de Gipuzkoa para arreglar el tramo del puerto de Arlaban de la carretera GI627

Concedida la palabra, Eluska Irazu hace una breve exposición de las razones por las que su grupo presente la moción cuyo texto se transcribe literalmente a continuación:

ESKORIATZAKO EHBILDUREN MOZIOA: GI-627 ERREPIDEA ARLABAN MENDATEAREN TARTEAN KONPONTZEKO FORU ALDUNDIARI BIDERATZEKO ESKARIA

Eskoriatza, 2019ko Ekainak 20

Herritarrek adierazitakoari erantzunez:

ADIERAZTEN DUGU:

- *Gaur egun, Arlabaneko GI-627 errepideak hainbat puntu beltz izaten jarraitzen dituela, zehazki, 22-23; 23-24; 24-25 puntu kilometriko-tarteak galtzada-asfaltoari dagokionez.*
- *Aipatutako errepideak arazoak eman dituela hainbatetan, besteak beste: 1991ko martxoan; 2009ko maiatzean; 2013ko otsailean; 2016ko martxo eta ekainean; 2018ko urrian.*
- *Errepidearen egoera desegokiaren ondorioz, hainbat istripu suertatu dira, batez ere, txirrindularien artean. Azkenak, aste honetan bertan, ekainak 13 eta 16an, biak zein biak nahiko larriak.*

ESKATZEN DUGU:

- ***Gipuzkoako Foru Aldundiari kezka hau helaraztea eta haien kontaktu iraunkorra mantentzea:** herritarren kezkari erantzunez eta GI-627 errepidea erabiltzen dutenen segurtasuna bermatu aldetik, lehenbailehen, hartu daitezen behar diren neurriak, hala nola, eta lehenengo neurri gisa: errepidean dauden zulo, desnibel eta bestelakoak konpondu.*
- *Aurrera begira, eta, sortu daitezkeen arazoak aurreikusiz errepide horrek behar dituen egokitze neurri guztiak hartzea bazter-babesen aldaketa barne.*

Ez Ohikoa Udalbatza
Pleno Pleno Ez Ohikoa



- **Diputazioari bidaliko zaion eskaera honen berri Leintz Gatzagako udaletxea informatzea;**
haien jakinean gainean jarriz eta nahi dituzten iniciatibak hartzeko asmoz, batera helarazteko aukera eman.

Aldez aurretik eskertuta, zuen erantzunaren zain,

Expuestas las razones y tras informar que es una moción consensuada con el Ayuntamiento de Leintz Gatzaga , se producen las siguientes intervenciones:

Iñaki Kerejeta: Sí, el arreglo es del todo necesario, y no sólo el de ese camino sino que también el del otro. El arreglo, así como la limitación de la velocidad, son cuestiones que en repetidas ocasiones se han reclamado desde las antieglisas. Yo propondría crear una comisión entre el Ayuntamiento de Eskoriatza y el de Leintz Gatzaga para abordar el asunto conjuntamente y dar traslado de la solicitud a la Diputación.

Josu Ezkurdia: Nosotros, ante esta moción, queremos hacer dos reflexiones, La primera, es nuestra sorpresa. Creemos que este es un tema que debe de ser tratado y gestionado desde una comisión informativa, y las comisiones informativas nuevas todavía se han creado en el pleno de hoy. Y sorpresa digo porque esta es una moción sobre la que no hemos tenido tiempo de hablar. Nosotros, en la anterior legislatura ya dijimos a vuestro grupo que estamos en disposición de debatir , consensuar y aprobar mociones; pero con antelación a esta mesa. No como en este caso, que recibimos sobre la mesa un papel sin haber sido tratado previamente. Cara al futuro, estáis en todo vuestro de derecho de presentar cuantas mociones consideréis oportuno, pero nosotros, si antes no han sido debatidas, consensuadas o tratadas, las rechazaremos automáticamente sin entrar en el fondo del asunto. Y es el caso de esta moción. No ponemos en duda si el estado de la carretera el bueno o malo, tampoco ponemos en cuestión el contenido de la moción, pero no la aprobaremos por lo que he dicho anteriormente, porque no se ha tratado previamente. Y en cuanto a la segunda reflexión, y los que nos conocéis los sabéis, lo que hemos conseguido en los cuatro años anteriores y queremos seguir consiguiendo los otros cuatro próximos es tener una relación directa con otras entidades públicas, incluidas la Diputación y el Gobierno Vasco. Eso quiere decir que no vamos a tener ningún problema en plantear peticiones como ésta (y otras que puedan venir) ante los responsables de los departamentos implicados, de hablar, de consensuar soluciones,, y de saber también ellos qué intenciones tienen. Creemos que ese debe de ser el camino y no el de las mociones. No vemos que tiene sentido que el Ayuntamiento de Eskoriatza presente una moción ante su Diputación si antes no ha hablado sobre el asunto y ha dado traslado de la problemática. Por esas dos razones vamos a votar en contra. Y vuelvo a repetir, no por el fondo sino que por la forma.

Eluska Irazu: En cuanto a la primera reflexión, la de la sorpresa. Si no me equivoco, en la propia moción se dice que los últimos accidentes fueron el 13 y 16 de junio, y creo que exigen una actuación rápida. Si bien Edurne ya me indicó que me dirigiera a la Comisión, visto que todavía



éstas no estaban formadas, que entre que se constituyen, se trae al pleno, vacaciones, se hace la petición,... nos situábamos casi en Navidades y todavía no se habría hecho nada. Si se ha tramitado a través de una moción es por poner el asunto en marcha cuanto antes, no ha sido por llamar la atención o por ir en contra de nadie; ha sido solo por poner en marcha el proceso, por nada más. Y bueno, está presentada desde el viernes. Nosotros somos nuevos, no sabemos cuál es el funcionamiento de hasta ahora y sobre qué se ha hablado los últimos cuatro años. Somos nuevos y agradecemos que se nos avisen las cosas. Agradecemos que se nos diga cómo se funciona habitualmente. Que vosotros tenías establecido hace 4 años con EH BILDU que las mociones se trataban con anterioridad, pues vale, pero nosotros lo hemos sabido ahora y para nosotros el asunto de esta moción es urgente.

Josu aclara que igual se ha expresado mal, pero que no es que ellos consensuaron con EH BILDU que las mociones se debían de tratar de consensuar con anterioridad, sino que ha sido una condición que puso EAJ/PNV, una decisión suya. Luego, dice: Y por otro lado, y visto cual es el fondo del asunto , voy a hacer una propuesta. La semana que viene va a haber una comisión de urbanismo, la nueva Diputación todavía está en fase de constitución y no sabemos todavía quienes serán los responsables de cada departamento para poder ir ahora a hablar con ellos. Planteo que si retiráis la moción se trate el asunto en la comisión de la próxima semana, se acuerde como gestionar el asunto e ir con el planteamiento a la Diputación. Las razones que habéis dado nos parecen de todo lógicas; por ello, si retiráis la moción estamos dispuestos a tratar el asunto en la comisión del próximo jueves.

El Alcalde aclara que el planteamiento de su grupo para con las mociones no era sólo con EHBILDU sino que con todos los grupos del ayuntamiento.

Para que los concejales de EHBILDU puedan tratar la propuesta que Josu Ezkurdia les ha hecho, el Alcalde acuerda un receso de cinco minutos.

Reanudada la sesión, interviene Eluska Irazu: En primer lugar, gracias y perdón. Lo primero que quiero es aclarar que esta moción tiene por objeto el que los Ayuntamientos de Eskoriatza y Leintz Gatzaga conjuntamente den traslado de esa necesidad a la Diputación. No se trata de llevar otra moción a la Diputación. Por eso, no vamos a retirar la moción, hemos adquirido un compromiso ante quienes nos lo han pedido, han visto que la hemos presentado y como representantes creemos que debemos mantenerla.

Josu Ezkurdia: Visto vuestro planteamiento, nosotros votaremos en contra, pero se tratará el asunto en la comisión de urbanismo del próximo jueves.

Terminadas la intervenciones se procede a votar.

Con el resultado de 5 votos en contra (EAJ/PNV), 1 abstención (EEE) y el voto a favor de los 3 concejales de EHBILDU, la moción no es aprobada.

7.- Ruegos y preguntas.

Ez Ohikoa Udalbatza
PlenoPleno Ez Ohikoa



Por parte de ningún concejal presente se plantea ruego o pregunta alguna.

De entre el público, Jose Mari Kortazar, en representación del grupo “Lagunkoia” , solicita intervenir. El Alcalde-Presidente le concede la palabra.

A continuación se hace un breve resumen de su intervención:

Tras informar que están presentes en la sesión cinco integrantes del grupo, expone las líneas generales del proyecto que promueven el grupo de jubilados que integran Lagunkoia. Hace saber que han hecho un análisis del pueblo, centrado principalmente en cuestiones urbanísticas y sociales, así como que, tras las fiestas de San Pedro, harán una presentación a cada uno de los tres grupos que integran la corporación del programa de actuación que proponen.

También manifiesta que el primer objetivo de su asistencia a esta sesión es el de conocer a cada uno de los tres grupos municipales del Ayuntamiento en la reunión de inicio de la legislatura y así poder hablar con criterio y voz propia ; que el segundo objetivo, unido al propio de la asociación que representa, Lagunkoia, y que significa “amigable”, sería el contribuir a hacer un pueblo más amigable y que una vía para ello podría ser el asignar a la oposición la responsabilidad de una de las comisiones que se han creado, así como el que los planes estratégicos que se planteen para medio y largo plazo sean consensuados porque, dice, el consenso es garantía de la viabilidad de esos planes.

Terminada la anterior intervención, el Alcalde , tras mostrar su agradecimiento, hace saber a los representantes de Lagunkoia que su grupo, como lo ha venido haciendo hasta ahora, tendrá las puertas abiertas para escuchar y atender las propuestas de la asociación. Y en relación a la última cuestión planteada, dice, que puede manifestar con total orgullo que durante 2018 el 90% de las cuestiones planteadas en el pleno se aprobaron por unanimidad, con consenso , y que ello es muestra de cuál es la voluntad de su grupo, y que, como ya se ha dicho en otra ocasión, la intención de su grupo es seguir trabajando como hasta ahora porque visto que el resultado ha sido bueno no hay razones para cambiar. Finaliza su intervención diciendo que ellos seguirán con las puertas abiertas y que para que haya consenso y se repitan los porcentajes citados ha de haber voluntad por parte de todos, que su grupo sigue con el compromiso de escuchar y atender a todas aquella persona o asociación que lo pida, y con más motivo ratifican ese compromiso ante aquellos que, como Lagunkoia, pueden hacer importantes aportaciones por y para el pueblo de Eskoriatza.

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:40 horas. De todo lo cual como Secretaria doy fe.